



2020/02/27KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2020/02/27
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:50

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Oihana Ameskoa Perez

Santiago Balantzategi Beitia

Ana Maria Martiarena Arregi

Gorka Astondoa Altuna

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailea, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.	3
4. HAINBAT UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.	3
5. ALKATEA ESKUORDETZEA ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANEI DAGOKIEN OBRA ZIURTAGIRIAK ORDAINTEKO.	5
6. ONARTZEA, ARAMAIOKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN ARDURA HARTZEKO.	5
7. ONARTZEA, ARAMAIOKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, ERAKUNDEAK DATU BABESAREN ARAUDIAREN BETEBEHARRETARA EGOKITZEKO.	5
8. ONARTZEA FIDANTZAREN ITZULERA EGITEA OPACUA S.A. ENPRESARI.	7
9. ONARTZEA FIDANTZAREN ITZULERA EGITEA EXCAVACIONES ARRASATE S.L. ENPRESARI.	8
10. ONARTZEA, BADAGOKIO, 2020KO UDAL AURREKONTUA.	9
11. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPENA.	9
12. GALDERAK ETA ESKAERAK.	9



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURATAKO AKTAK.

Alkate-Lehendakariak 2019ko urriaren 31n egindako ohiko bilkurako eta azaroaren 21ean egindako ezohiko bilkurako akten gainean inork oharririk ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu dira, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (331/19tik 46/20ra).

3. ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEEN SOLDATA IGOERA EGITEA.

2020/01/22an argitaratu zen EAOn 2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-dekretua, sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2020 urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

Hain zuzen, 2/2020 Errege Lege-dekretuan hau dago xedatuta, besteen artean:

- 2020 urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko ehuneko 2 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneousotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langilearen antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2020an ezingo baitira izan 2019ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansariekiko desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langilearen inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.
- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2019ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 1eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundea izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:
 - BPGd 2,1aren berdina: %2,20.
 - BPGd 2,2aren berdina: %2,40.
 - BPGd 2,3aren berdina: %2,60.
 - BPGd 2,4aren berdina: %2,85.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEK BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, alde aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

Korporazioak, 2020ko otsailaren 27an egintako Osoko Bilkuran, **ADOSTEN DU:**

Lehena.- 2020/01/01etik aurrerako eraginarekin, langileen ordainsariak legez onartzen den gehienekora igotzea, hau da, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko %2.

Bigarrena.- Aurretik esandako Ministro Kontseiluak dagokion zehaztapena eta onespina ematen duenean, xedatuta dagoenaren arabera, dagokion igoera hori 2020/07/01etik aurrera gehitzea, betiere, une horretan egokiak diren aurrekontu esleipenak hornitu ahal izateari kalterik eragin gabe.



Hirugarrena.- Honakoaren berri ematea udal langileei.”

4. HAINBAT UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUA LUZATZEA.

2017ko maiatzaren 25ean egindako Osoko Bilkurak onartu zuen, besteen artean, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua kontratatzeko espedientea onartzea. Horrekin batera, onartu ziren lehiaketa arautuko zituzten administrazio baldintza zehatzen orria, preskripzio teknikoen orriak eta gastua egitea.

2017ko irailaren 2an egindako Osoko Bilkuran, berriz, SAMSIC IBERIA, S.L.U. enpresari esleitu zitzaion, esan bezala, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzu kontratua. Horrenbestez, 2017ko abenduaren 12an sinatu zuten alderdiek, esleipena formalizatzen zuen kontratua.

Kontratua arautzen duten administrazio klausula berezien pleguan jasotzen da, kontratuaren iraupena bi urtekoa izango dela, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita, eta berariaz luzatu ahal izango dela urtero, urte beteko epeaz. Haatik, iraupena guztira ez da izango lau urte baino luzeagoa.

Kontuan hartuz aipatutako data hori igaro berri daukagula eta, baita ere, udaleko zerbitzuek egindako txostena dela luzapen berri baten aldekoa.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- Luzatzea 2020ko abenduaren 12a arte SAMSIC IBERIA, S.L.U. enpresari egindako esleipena, Aramaioko Udalaren esku dauden hainbat eraikinen garbiketa zerbitzua aurrera eramateko.

Bigarrena.- Erabaki honi 2019ko abenduaren 12ko eraginkortasuna ematea.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ALKATEA ESKUORDETZEA ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANEI DAGOKIEN OBRA ZIURTAGIRIAK ORDAINTZEKO.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, gogorarazten du, aurreko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkurak erabaki zuela, besteen artean, hasiera ematea erabilera anitzeko udal gazte zentroaren exekuzio lanei dagokien obra kontratua esleitzeko espedienteari. Dagokion jardunbidea aurrera eraman ondoren, berriz, INDENORT, P.V., S.L. enpresaren aldeko esleipena egin zela eta, horrenbestez, 2019ko azaroaren 8an, dagokion kontratua sinatu zela, Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 31n alkatearengan egindako eskuordetza betez.

Besterik gabe, aurkezten du, Hirigintza Batzordeak onartzea proposatzen duen akordioa:

Bakarra.- Alkatea eskuordetzea, ordainketa prozedura arintzeko xedez, erabilera anitzeko udal gazte zentroaren exekuzio lanei dagokien obra kontratua esleitzeko espedientearekin lotutako zertifikazioak, beti ere, agiriok obra zuzendaritzaren eta udal teknikarien onspena jaso ondoren.

Horrenbestez, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, Hirigintza Batzordearen proposamena, aho batez, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. ONARTZEA, ARAMAIOKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN ARDURA HARTZEKO.

Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Ongizate-Estatuaren oinarri denak, botere publikoen betebeharrak arautzen du, eskubidea duten pertsona guztiek gizarte zerbitzuetarako sarbidea eta zerbitzu horiek erabiltzeko bidea izan dezaten bermatzeko. Berme horren baldintzak honakoak zehazten ditu: urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karterari buruzkoak, eta baita Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapak ere, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek 2016ko uztailaren 22an berretsiak, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren markoaren barruan.



Aipatutako 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua unitate balioanizduna eta diziplina anitzekoa da, udalerriko gizarte zerbitzuetan arreta integratua ematen duena, eta herritarren Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemarako sarbidearen lehenengo puntu gisa jokatzeko duena.

Halaber, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren funtzio nagusia da, bere jarduteko lurralde-eremuaren barruan, gizarte zerbitzuaren esparruan barruan artatu beharreko gizarte-beharrak atzematea eta behar horiei arreta ematea, eta bere eraginpeko eremu geografikoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako eskakizun ezberdinen sarbidea koordinatu eta kudeatzea.

Kontuan hartu beharra dago, 12/2008 Legearen 29. artikulua arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua udal eskumen bat da, eta hainbat gaitasun eta funtzio dakartzala berarekin. Hartara, esleitzen zaizkion funtzioak gauzatzeko oso zailak direla Arabako Lurralde Historikoko udalerrri gehienetan, duten tamaina eta herritar kopuru txikiarengatik. Udalerrri horiek ez baitute nahikoa azpiegitura, zerbitzua behar bezala emateko. Gauzak horrela, aipatutako artikulua 3. puntuan bertan aurreikusten da aipatutako zerbitzua modu bateratuan antolatzeko aukera.

Kontuan hartuz, Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Udalek udalek obligazioa dutela, zerbitzuaren eraginkortasuna bermatuko duten mekanismoak ezartzeko, eta herritar guztiak jaso dezaten aipatutako gizarte zerbitzua maila eta kalitate berean, baliabide ekonomikoaren kudeaketa eta exekuzio eraginkor eta egoki bat eginez. Horretarako, komenigarria ikusten da lankidetzaren marko bat ezartzea, Gorbeialdeko Kuadrillaren eta berau osatzen duten eta hala erabakitzen duten udalen artean, udal-eskumenekoak diren hainbat funtzio gauzatzeko.

Kontuan hartuz, esandako erakundeek hitzarmen-proposamen bat landu dutela, udal eskuduntzako oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko lankidetzaren marko bat ezartzeko eta Gorbeialdeko Kuadrillaren eta hitzarmena sinatzen duten udalen artean, Kuadrilla osatzen duten udalerrietako herritarrei arreta eskaintzeko. Horren bitartez, araudiak ezarritako betebeharrak eraginkorki heltzeko.

Aurreko guztiaren aurrean eta Ongizate Batzordeak egindako erabaki proposamena kontuan hartuz, Udalbatzak, aho batez **ADOSTU** du,

Lehena.- Igorritako hitzarmenaren testua onestea, gerta daitezkeen zuzenketak onartuz, baldin eta zuzenketak ez badiete eragiten hitzarmenaren xede edota baldintzei.

Bigarrena.- Lierni Altuna Ugarte andrea, alkatesa, eskuordetzea hitzarmena sinatzeko.

Onartutako hitzarmenaren testuak horrela dio, hitzez hitz:

“ARAMAIOKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA,
AZKEN HONEK OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN ARDURA HARTZEKO.

Murgian, 2020ko otsailaren 28an.

BILDURIK

Alde batetik, LIERNI ALTUNA UGARTE andrea, Aramaioko Udaleko Alkate-presidentea, Tokiko Araubidearen Oinarriak buruzko apirilaren

2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua onduz eskura duen ordezkariaren bidez hitzarmen hau sinatzeko baimenarekin, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, Udalbatzaren idazkari-kontuhartzaileak, hitzarmen honen fede emateko, lagunduta.

Beste aldetik, AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA, Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea, Kuadrillaren izenean eta ordezkariaren bidez, 2019ko urriaren 8ko saioan Kuadrillako Batzarraren akordio bidez egindako izendapenaren eraginpean, eta 2019ko maiatzaren 20an Kuadrillako Batzarrak onartutako akordio bidez hitzarmen hau sinatzeko baimenarekin.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote ekitaldi hau egiteko beharrezkoa den lege-gaitasun nahikoa dutela, ondorengo aurrekariak kontuan hartuta:

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Ongizate- Estatuaren oinarri denak, botere publikoaren betebeharrak arautzen du, eskubidea duten pertsona guztiak gizarte zerbitzuetarako sarbidea eta zerbitzu horiek erabiltzeko bidea izan dezaten bermatzeko. Berme horren baldintzak honakoak zehazten ditu: urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karterari buruzkoak, eta baita Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapak ere, Arabako Foru



Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek 2016ko uztailaren 22an berretsiak, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren markoaren barruan.

BIGARRENA: Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua unitate balioanizduna eta diziplina anitzekoa da, udalerriko gizarte zerbitzuetan arreta integratua ematen duena, eta herritarren Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemarako sarbidearen lehenengo puntu gisa jokatzen duena.

HIRUGARRENA: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren funtzio nagusia, bere jarduteko lurralde-eremuaren barruan, gizarte zerbitzuaren esparruan barruan artatu beharreko gizarte-beharrak atzematea eta behar horiei arreta ematea da, eta bere eraginpeko eremu geografikoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako eskakizun ezberdinen sarbidea koordinatu eta kudeatzea.

LAUGARRENA: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, agintzen zaizkion lehen arretarako gizarte zerbitzuen hornidura- funtzioa izango du, eta, edozein kasutan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluko 1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4 ataletan aurreikusitakoak. Bere esparruaren barruan, aipatutako Legearen 19. artikulua arautzen duen eskuhartzerako oinarrizko prozedura aplikatzea bermatuko du.

BOSGARRENA: Aipatutako Legearen 29. artikulua arabera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzua udal eskumen bat da, eta hainbat gaitasun eta funtzio dakartza berarekin.

SEIGARRENA: Esleitzen zaizkion funtzioak gauzatzeko oso zailak dira Arabako Lurralde Historikoko udalerrri gehienetan, duten tamaina eta herritar kopuru txikiarengatik. Udalerrri horiek ez dute nahikoa azpiegitura, zerbitzua behar bezala emateko. Gauzak horrela, aipatutako artikulua 3. puntuan bertan aurreikusten da aipatutako zerbitzua modu bateratuan antolatzeak aukera.

ZAZPIGARRENA: Bertako langileek dituzten gabeziak bateratzeko, Lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatuko duten mekanismoak ezartzeko, eta Lurraldeko herritar guztiak aipatutako gizarte zerbitzua maila eta kalitate berean, baliabide ekonomikoaren kudeaketa eta exekuzio eraginkor eta egoki bat eginez, jaso dezaten, komenigarria da lankidetzak-marko bat ezartzea, Gorbialdeko Kuadrillaren eta berau osatzen duten eta hala erabakitzen duten Udalen artean, udal-eskumenekoak diren hainbat funtzio gauzatzeko.

ZORTZIGARRENA: Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 1. artikulua, Arabako Kuadrillak udalerriz osatutako lurralde-erakunde foral gisa itxuratzen ditu, eta honako helburua dutela dio: bere lurralde-eremuari eragiten dioten gaietan parte hartzea eta interes orokorreko auziak sustatu eta kudeatzea.

63/1989 Foru Arauaren 28. artikulua ezartzen duen bezala, "Kuadrillei dagokie, parte-hartzeko eta kontsultarako erakunde gisa, eta eskualdearen interesak sustatzeko eta kudeatzeko erakunde gisa:

e) Kuadrillaren interes orokorrekoak diren zerbitzuak sustatu eta kudeatzea."

BEDERATZIGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak espainiar ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (hemendik aurrera SPKL), bere 31.1 artikuluan honakoa ezartzen du:

"1. Sektore publikoaren barruko erakundeek elkarrekin lankidetzan jardun ahal izango dute, lankidetzak horren emaitza kontratu bidezkoa izan gabe, honako bidez:

b) Sektore publikoaren barruko erakundeek harteko lankidetzak-sistema horizontalen bidez, alde aurretik dagokion hitzarmena sinatuta, 6. artikuluko 1. atalean ezartzen diren baldintzen eta mugen barruan."

HAMARGARRENA: Lankidetzak horrek legeko oinarria du erakunde arteko lankidetzak, kooperazio eta laguntza printzipioetan, besteak beste, honako artikuluetan jasotakoetan: Sektore Publikoko Araudi Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. eta hurrengoak, eta Hitzarmen honen bidez gauzatzen den Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 43.a eta hurrengoak.

Hitzarmen hau, aurrez aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengo bidez sinatzen da, eta horien bidez baimentzen da aipatutako zerbitzuaren funtzioen kudeaketaren esleipena.

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasun eskakizunei dagokienez, SPEJLaren 48. artikulua honakoa ezartzen du: hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzeko, baliabide publikoak modu bateratuan erabiltzea errazteko, erabilera publikoko jarduerak gauzatzeko laguntzeko eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren legeria betzeko balio behar du. Horrekin lotuta, hitzarmenaren ondoriozko gastuek, hitzarmena sinatzen duen Administrazioarentzat konpromiso finantzarioak dakartzatenean, aurrekontuaren legeria bete beharko dute, eta finantziarioki jasagarriak izan beharko dute. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, sinatzaileek finantzatzeko gaitasuna izan behar dute.

Aurrekoa ikusirik, hitzarmen hau, Kuadrillari berari, eta hitzarmenean parte hartzen duten Kuadrillako udalei aplikatuko zaie, ondorengo klausuletan ezarritakoaren arabera:



LEHENENGOA: HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da udal eskuduntzako oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko lankidetzeta-markoa ezartzea, Gorbeialdeko Kuadrillaren eta hitzarmena sinatzen duten udalen artean, Kuadrilla osatzen duten udalerrietako herritarrei arreta eskaintzeko.

BIGARRENA: ZERBITZUA OSATZEN DUTEN LANGILEAK.

Zerbitzuan parte hartzen duten udalek, hain zuzen ere, Kuadrilla osatzen duten udal guztiek, adierazitako beharren arabera, eta, Lurralde Historikoko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera aztertzeke helburuarekin

2017an Arabako Foru Aldundiak egindako "Arabako landa eremuko oinarrizko gizarte zerbitzuen lan kargari buruzko azterketatik" eratorritako beharren arabera, Gorbeialdeko Kuadrillako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko langileak honakoak izango dira:

- Hiru langile, lanaldi osoz, Gizarte Laneko Diplomaturaren kualifikaziodunak.
- Langile bat, jardunaldi osoz, Administrari Laguntzaile kategoriaduna, aurrez adierazitako langileei administrazio-laguntza emateko helburuarekin.

HIRUGARRENA: OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN ZONIFIKAZIOA

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zonifikazioa, udalerrietako herritar kopurua eta gaur egun gizarte langileek duten lan karga kontuan hartuta egingo da.

Eremu bakoitzaren ardurua, gizarte laneko Diplomatura kualifikazioa duen langile batek izango du. Herritarrei behar bezalako arreta emateko, langile horiek txandakako egutegia izango dute, bakoitzaren ardurapeko eremuko udalerrietan, zerbitzua "in situ" emateko modua egon dadin, horietako bakoitzean.

Hala ere, hitzarmenaren sinadura- egunean Gorbeialdeko Kuadrillak beharrezko kualifikazioa duten bi langile bakarrik dituzenez, beharrezko langileen hornikuntza egin arte, gaur egungo zonifikazioa egongo da indarrean. Honakoa, hain zuzen ere:

- A eremua: egoitza, Zuian. Udalerriak: Zuia, Urkabustaiz eta Zigoitia.
- B eremua: egoitza, Legutien. Udalerriak: Legutio, Aramaio eta Arratzua-Ubarrundia.

Zerbitzuko administrari- laguntzailearen kasuan, zerbitzuen bi egoitzetan lan egiteko txandakako egutegi bat prestatuko da. Bi egoitzetan txandaka egingo du lan, azken emaitza bien artean orekatua izan dadin.

LAUGARRENA: FUNTZIOAK.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, unitate balioaniztunez eta diziplina anitzekoez osatuak, honako helburua du: ekintza komunitarioa garatzea, eta gizarte zerbitzuen sistemaren instantzia ezberdinetarako sarbidea koordinatzea eta kudeatzea. Honako funtzioak betetzen ditu:

1. Eremuko herritarrei informazioa, balorazioa eta orientazioa ematea, beren eskubide sozialei eta eskubide horiek gauzatzeko baliabideei buruz.
2. Beharrian sozialen asebetetzean geratzen diren disfuntzioak eta defizita atzematea.
3. Bizikidetzeta-zerbitzuak edo programak eskaintzea, interesa duen pertsonaren bizilekuan bertan laguntza-jarduerak eskainiz.
4. Eskuhartze-programak garatzea, pertsonen, familien eta taldeen integrazio soziala errasteko baliabideak eskaintzeko helburuarekin, bazterkeriaren prebentzioa lehenetsita.
5. Beharrian sozialen gaineko sentsibilizazio-programak, eta komunitate- bizitzaren garapenean parte hartze soziala sustatzeko programak egitea.
6. Dagozkien zerbitzuen tramitazioa kudeatzea.
7. Informazioa lantzea, homogeneousazio, koordinazio eta sistematizazio irizpideekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren barruan.
8. Gizarte baliabideen erabilera eraginkorra lortzeko planifikazio eta arrazionalizazio lanen oinarri gisa jardutea, beren lurralde- eremuko gizarte-beharrizanak atzemanaz edo beharrian horiek asebetetzeerakoan sortutako arazoak atzemanaz.
9. Garatu dezaketen eta aurrekoen parekoa den beste edozein funtzio, berariaz esleitzen bazaie.

BOSGARRENA. ALDEEN KONPROMISOAK.

Zerbitzua ezartzeko, eta bere helburuak behar bezala garatu eta betetzeko, alde sinatzailek ondorengo konpromisoak hartu dituzte:

A) HITZARMENA SINATZEN DUEN UDALAK:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak udal- titularitatea du. Beraz, zerbitzuan parte hartzen duen udalak konpromisoa hartzen du



Arabako Foru Aldundiak, edo, hala badagokie, beste erakunde batzuk, diruz laguntzen ez duen zatia bere gain hartzeko, udalerrian zerbitzuak urtean dituen ordu kopuruaren arabeko proportzioan. Bere ekarpenak, gainerako erakundeen ekarpenekin batera, zerbitzuaren kostuaren %100 bete beharko du, eta ezingo dio Kuadrillari inolako defizitik eragin.

2. Bi aurrerapen ordaintzea, hitzarmenaren helburu diren zerbitzuak gauzatzeko finantzazio-iturri beharrezko gisa (Gorbeialdeko Kuadrillak ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azkeneko hiru hilekoan egiten dituen diru-sarrera eta kostuen aurreikuspenen arabera). Aurrerapen horiek zerbitzuaren kostu errealean justifikazioa baino lehen egiten diren funtsen ordaintekak izango dira. Ordaintekak horiek honela egingo dira: apirilean %50, eta gainerako %50a urte bakoitzeko urriaren hasieran.
3. Aldeek badakite zerbitzuaren finantzazioaren zatirik handiena gaur egun Arabako Foru Aldundiaren eskutik datorrela. Foru Aldundiak ez du dirulaguntzaren bukaerako doiketa finantzazioa jasotzen den urtearen hurrengo urteko lehenengo hiru hilekoa baino lehen aurkezten. Horregatik, data hori iritsi arte, Kuadrillak ez daki zein izango den erakundearen azkeneko ekarpena, eta, horrek, Kuadrillak udalei egin beharreko azkeneko likidazioa, eta beharrezkoak izan daitezkeen doiketak, likidatutako urtearen hurrengo urteko lehenengo hiru hilekotan egin behar dira.

Horrela, behin betiko zifrak ezagutu ondoren, udalak egindako ekarpena bukaeran ordaindu beharreko kopurua baino txikiagoa bada, Udal sinatzaileak, eskaera jasotzen duenetik hamabost eguneko gehienezko epean, diferentzia ordaindu behar du, edo, beharrezko ikusten bada, aipatutako zifrekin udalak izan ditzakeen zalantzak behar bezala argitu ondoren.

- 4.- Udalek nahitaez eman beharreko zerbitzu bat denez gero, udalen batek Kuadrillaren zerbitzuetik banatu nahi badu, eta Kuadrillak edo zerbitzuan jarraitzen duten gainerako udalek ezin badituzte dagozkion zerbitzu-ordua bere gain hartu, udal horrek oinarritzko gizarte zerbitzuko langileak subrogatu beharko ditu, dagozkion neurrian, edo, bestela, banaketa horrek eragiten dituen kostu ekonomikoak bere gain hartu beharko ditu.
- 5.- Lokala edo lokalak eskaintzea, beharrezko ekipamendu eta materialekin, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko langileak, fisikoki bertan daudenean erabil ditzaten.

B) GORBEIALDEKO KUADRILLAK:

1. Gaiaz arduratzen diren Administrazio edo Erakunde Publikoek beharrezkoak diren dirulaguntzak eskatzea edo erakunde horiekin hitzarmenak sinatzea, hitzarmen honen helburu diren zerbitzuen finantzazioa laguntzeko.
- 2.- Hitzarmena sinatzen duen Udalarekin eta Arabako Foru Aldundian gaiaz arduratzen den sailarekin lankidetzan jardutea, oinarritzko gizarte zerbitzuen koordinazio-lanetan, eta erakunde horien eta Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko langileen arteko komunikazio egokia erraztea.
- 3.- Udalei, zerbitzuen funtzionamenduari lotuta eskatzen dituzten datuak ematea.
- 4.- Esparruaren barruan, bere lurralde- eremuan garatu beharreko udal- eta foru- zerbitzu eta programetan parte hartzea.
- 5.- Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azkeneko hiru hilekoan, Kuadrillak zerbitzuaren kostuen eta diru-sarreraren aurreikuspen bat egingo du, hurrengo ekitaldira begira, eta Udal sinatzaileari bidaliko dio, honek, dagozkion aurrerapenak egiteko beharrezko kreditua bere aurrekontuan txerta dezan.
Aurreikuspenak izaera horixe bakarrik izango du, izan ere, beste erakundeetatik, bereziki Arabako Foru Aldunditik, datorren zerbitzuaren finantzazio partzialak ez du uzten bukaerako zifrak zehaztasunez ezagutzea, likidatutako den urtearen hurrengo urteko lehenengo hiru hilekora arte.
6. Aurreko ataleko 3. puntuan azaldutako irizpideekin bat eginez, udalak egindako ekarpena bukaeran ordaintzea egokitu zaiona baino handiagoa izan bada, Kuadrillak diferentzia ordaindu beharko du likidazioa jasotzen duenetik hamabost eguneko gehienezko epean, diferentzia ordaindu behar du, edo, beharrezko ikusten bada, aipatutako zifrekin udalak izan ditzakeen zalantzak behar bezala argitu ondoren.
- 7.- Oinarritzko Gizarte Zerbitzuari, bere funtzionamendu egokirako beharrezkoak dituen informazioa, laguntza teknikoa eta aholkularitza ematea, eta zerbitzuko langileak formazio- eta berritze-planetan txertatzea, bai udalek antolatzen dituztenetan, bai Arabako Foru Aldundian arloaren eskuduntza duen sailarenetan.

SEIGARRENA: HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen hau indarrean egongo da, SPEJLaren 49.h) artikuluan ezarritakoa betez, 4 urteko epealdian, ez bada epe luzeago bat arautzen.

Aurreko atalean aurreikusitako epea bukatu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez ere lau urte gehigarritan, edo bertan behera uztea.

Aurrekoaz gain, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak langileak kontratatzea dakarrenez, aldeek beren borondatea adierazten dute ahalik eta ahalgini handiena egiteko, dokumentu honen bidez, edo beste dokumenturen bidez, zerbitzu honen esleipenak izaera iraunkorra izan dezan.



ZAZPIGARRENA: ALDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA.

Hitzarmenaren exekuzioaren kontrolaren eta jarraipenaren ardura duen organo gisa, Batzorde bat eratzen da. Batzorde hori Gorbeialdeko Kuadrillako ordezkari batek eta udal sinatzaileko ordezkari batek osatzen dute.

Organo horren funtzioak honakoa dira: zerbitzua eman bitartean sor daitezkeen gorabeherak konpontzea, eta hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio-zalantzak ebaztea.

Gaia eztabaidatu ondoren, desadostasunak jarraituko balu, aldeek egoeraren berri emango liekete zerbitzua osatzen duten gainerako udalei, era horretan, beharrezkoa bada, proposatutako auziak ebatzi ditzaten. Aldeek, udalen gehiengoak adostutako interpretazioa onartuko lukete.

Azken pauso gisa, gaia epaitegietara eraman behar balitz, aldeek Arabako Foru Aldundira joko dute, bien arteko bitartekaritza-lana egin dezan.

ZORTZIGARRENA: KONTRATUAREN EXEKUZIOA EZ BETETZEA.

Hitzarmenaren helburu diren zerbitzuen exekuzioa ez bada behar bezala betetzen, Udalak idatziz emango dio Gorbeialdeko Kuadrillari zerbitzua ematerakoan atzeman dituen hutsegiteak edo akatsak.

Azaldutako arrazoiek, zerbitzua ematen duen langileen lan-jarduneko hutsegiteei egiten badiete erreferentzia, Gorbeialdeko Kuadrillak idatzia helaraziko dio interesa duen langileari, idatzia jasotzen den egunetik hasi eta 10 eguneko epean, eskubidez dagozkiola irizten duen alegazioak aurkeztu ditzan.

Aldeek azaldutako arrazoiak aztertu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillak egokiena iruditzen zaion erabakia hartuko du, atzemandako egoera konpontzeko, beti ere, zerbitzuaren eta zerbitzuaren erabiltzaileen onura helburu izanik.

BEDERATZIGARRENA: HITZARMENA AMAITZEAREN ARRAZOIAK ETA ERAGINAK.

Hitzarmenaren amaiera, hitzarmena onartu zuen organo berak adostuko du, ofizioz, edo beste aldeak hala eskatuta, ondorengo arrazoiren bat tartean badago:

- a). Bi aldeen arteko akordioa.
- b). Bi aldeetako baten salaketa, eragina izan behar duen data baino gutxienez sei hilabete lehenago gauzatua.
- c). Oinarrizko ohiko betebeharrak ez betetzea. Hitzarmena amaitzeko arrazoi hori aplikatzeko, hitzarmena amaitzeko interesa duen erakundeak, aldez aurretik, Gobernu eta Koordinazio Batzordeari emango dio hitzarmena amaitzeko arrazoi horren berri, eta hitzarmena amaitzeko bere asmoaren berri. Behin komunikazio hori eginda, batzordearen deialdia egingo da. Batzordea, hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da. Aldez aurretik beste aldeari audientzia eskaini eta gero, hitzarmenaren amaieraren arrazoiari buruzko txostena egin beharko du. Behin batzordeak txostena egin ondoren, erakunde interesdunak dagokion ebazpena onartuko du.
- d). Indarraldiaren eta luzapenaren gehieneko epea.

2. Hitzarmena amaitzearen eraginak:

- a). Amaiera bi aldeen arteko akordioaren bidez erabakitzen bada, aldeen eskubideak, aldeek modu baliozkoan hitzartutakora egokituko dira.
- b). Hitzarmena Gorbeialdeko Kuadrillaren erruz ez betetzeagatik amaitzen bada, zerbitzuan parte hartzen duen udalak Kuadrillari eskatu ahal izango dio sortutako kalteak ordaintzea.
- c). Udal sinatzaileak hitzarmen hau amaitzeko aldebakarreko erabakia hartzen badu, udalak bere egin beharko ditu zerbitzua zuzenean emateagatik Gorbeialdeko Kuadrillak hartutako betebeharrak eta konpromisoak, bai ekonomikoak, bai langileei dagozkienak, edo, bestela, sortutako kalteengatik dagokion indemnitazioa ordaindu beharko du.
- d). Beste kasuetan, hitzarmenaren helburuarekin lotuta ordaindutako kopuruak edo ordaintzeko daudenak erregularizatuko dira.

HAMARGARRENA. ERREGIMEN JURIDIKOA.

Hitzarmenaren interpretaziotik eta hitzarmena betetzetik etor daitezkeen dudazko auziak, Administrazioarekiko Auzietarako Ordena Jurisdikzionalaren eskumenekoak izango dira.

Hitzarmena sinatzen duten aldeek konpromisoa hartzen dute, dagokien neurrian, Hitzarmen honetan jasota dauden zehaztapenak betetzeko.”

7. ONARTZEA, ARAMAIOKO UDALAREN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKO ERAKUNDE ARTEKO HITZARMENA SINATZEA, ERAKUNDEAK DATU BABESAREN ARAUDIAREN BETEBEHARRETARA EGOKITZEKO.

2016ko apirilaren 27an, pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduaren gaineko babesari eta datu pertsonalen zirkulazio libreaki buruzko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren (UE) 2016/679 Araudia



onartu zen. Horren bidez, 95/46/CE Zuzentaraua, Datuen Babeserako Araudi Orokorra, (aurrerantzean DBAO) indargabetu egin zen. Aipatutako zuzentzarau hori indarrean zegoen, 2018ko maiatzaren 25az geroztik.

Gorbeialdeko Kuadrillak, Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako udalek, beren hainbat jarduera garatzerakoan, datu pertsonalen tratamenduaren ardura dute. Hori dela eta, adierazitako administrazioek dagozkien jarduerak egin behar dituzte, DBAOari buruzko europar araudia behar bezala betetzen dela bermatzeko, eta, era berean, beren langileei jakinarazteko gaiaren inguruan dauden berrikuntza eta berezitasun nagusienak, ez-betetzeak eta akatsak saihesteari begira.

Aurrekoa ikusirik, esandako erakundeek hitzarmen-proposamen bat landu dute, aholkularitza teknikorako zerbitzua kontratatzeke eta, horren bidez, udalek eta kuadrillak datuen babeserako araudiak ezarritako betebeharrari egokitzeko.

Kontuan hartuz Aramaioko Udalaren betebeharra dela datuak babesteari buruzko araudia betetzea eta, halaber, udalak ez duela aipatutako obligazioak egokiro betetzeko behar adina pertsonal.

Ikusirik Gorbeialdeko Kuadrillak eginiko administrazio arteko hitzarmen proposamena, Aramaioko, Arratzua-Ubarrundiako, Legutioko, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako Udalen eta Gorbeialdeko Kuadrillaren artean, azken erakunde horrek datuak babesteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatu eta bere bidez emateko.

Aurreko guztiaren aurrean eta Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako erabaki proposamena kontuan hartuz, Udalbatzak, aho batez **ADOSTU** du,

Lehena.- Igorritako hitzarmenaren testua onestea, gerta daitezkeen zuzenketak onartuz, baldin eta zuzenketak ez badiete eragiten hitzarmenaren xede edota baldintzei.

Bigarrena.- Lierni Altuna Ugarte andrea, alkatesa, eskuordetzea hitzarmena sinatzeko.

Onartutako hitzarmenaren testuak horrela dio, hitzez hitz:

“ADMINISTRAZIOARTEKO HITZARMENA, ARAMAIO, ARRATZUA-UBARRUNDIA, LEGUTIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAKO UDALEN ETA GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ARTEKOA, AZKEN HONEK DATUEN BABESTEARI BURUZKO LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINTZEKO ZERBITZUA EMAN DEZAN.

Murgian, 2020.eko martxoaren __(e)an

BILDURIK

Alde batetik:

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA jauna, Gorbeialdeko Kuadrillako presidentea eta, Kuadrillako Batzarrak 2020ko otsailaren 19an egindako ezohiko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, .

Bestetik:

LIERNI ALTUNA UGARTE andrea, Aramaioko Udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko martxoaren ... (e)an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

MARÍA BLANCA ANTEPARA URIBE andrea, Arratzua-Ubarrundiako udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko otsailaren 24an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

JON ZUAZU ZUBERO jauna, Legutioko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko martxoaren 10ean egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA jauna, Urkabustaizko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko otsailaren 26an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

JAVIER GORBEÑA GARCÍA jauna, Zigoitiko udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko martxoaren ... (e)an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA jauna, Zuiako udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, udalbatzak 2020ko martxoaren 12an egindako udalbatzarrean hartutako erabakiaren bidez.

Aipatutako azken hauek, zein bere udaleko alkate izanik, norberaren udalaren ordezkari dihardute, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedaturikoan aintzat harturik.

Kuadrillari dagokionean, aipatu berri den artikulua hori aplikagarri zaio Arabako Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren azken xedapenean xedatutakoaren arabera.



Alderdiek elkarri aitortzen diote egintza hau egiteko behar den legezko gaitasun nahikoa, honako aurrekari hauek kontuan hartuta:

GERTAKARIAK

LEHENENGOA: 2016ko apirilaren 27an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua onartu zen, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, zeina 2018ko maiatzaren 25etik aplikatu behar baita.

BIGARRENA: Gorbeialdeko kuadrillak eta Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalek datu pertsonalen tratamenduen arduradun eta erantzule dihardute beren jarduerara askoren garapenean.

Horregatik, kuadrillak eta aipatutako udalek dagozkion ekintzak egin behar dituzte DBEOren Europako arautegia behar bezala betetzen dela bermatzeko eta, era berean, langileen artean zabaldu behar dituzte berrikuntza eta berezitasun garrantzitsuenak, ez-betetzeak eta akatsak saihesteko.

HIRUGARRENA: Hedatu beharreko ekintzen artean, adibide gisa eta inola ere muga moduan, DBEOn adierazitako alderdi hauek aztertzea lortu behar da, kuadrillarako eta udaletarako interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuk alde batera utzi gabe, planteatzen diren gaien ebazpena, betiere Zuzenbidearen interpretazio ikuspegi holistikotik begiraturik, zeinaren bidez harmonizatu nahi baitira Europako legeria, Espainiako etorkizuneko legeriaren transposizioa eta eta gainerako ordenamendu juridikoa: datuak babesteko politika; datuen tratamenduen inbentarioa; rol eta funtzio berrien proposamena, datuak babesteko ordezkari baten izendapena barne, DBEOk berak ezartzen dituen kasuetan; herritarren eskubide berriak datuen babesaren arloan; datuak biltzeko formularioetarako informazio-klausulak zabaltea; datuak eskuratzea eskatzen duten zerbitzu-prestazioak dituzten hirugarrenekin egindako kontratuak; datuen babesaren urraketak; eraginaren ebaluazioak eta alde zuzeneko kontsultak kontrol-agintaritzeari eta abar.

LAUGARRENA: Gorbeialdeko kuadrilla osatzen duten udalek interesa agertu dute erakunde horrek datuen babesaren arloko laguntza teknikorako zerbitzuak kontrata ditzan DBEO behar bezala betetzen dela bermatzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA: Kuadrillei buruzko azaroaren 20ko 63/1989 foru-arauaren 1. artikulua arabera, Arabako kuadrillak udalerriek osatutako lurralde-erakunde foralak dira, beren lurralde-eremuari eragiten dioten gaietan parte hartzeko eta interes orokorreko gaiak sustatu eta kudeatzeko.

Era berean, foru-arau horren 28. artikulua dio: "Kuadrillei dagokie, parte-hartze eta kontsultarako eta eskualdeko interesak sustatzeko eta kudeatzeko erakunde gisa:

.....

e) Kuadrillarako interes orokorreko zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea."

.....

BIGARRENA: sektore publikoaren kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 legeak (aurrerantzean SPKL), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten duenak (aurrerantzean, SPKL), honako hau dio 31.1 artikuluan:

"1. Sektore publikoa osatzen duten erakundeek elkarri lagundu ahal izango diote, eta lankidetzaren emaitza ezin izango da kontratu gisa kalifikatu:

b) Sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzaren horizontaleko sistemen bidez, dagozkion hitzarmenak egin ondoren, lege honen 6. artikulua 1. atalean ezarritako baldintzetan eta mugen barruan."

HIRUGARRENA: Honako hauek lirateke SPKLren 6. artikulua ezarritako baldintza eta mugak, toki-erakundeek beren artean egindako hitzarmenak aplikazio-eremutik kanpo utzi dituzten:

a) Parte hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izan behar (lankidetzaren xede diren jardueren % 20 gutxienez merkatu irekian egiten direnean).

b) Hitzarmenean parte hartzen duten erakundeen arteko lankidetzaren ezar dadin, zein bere ardurapeko zerbitzu publikoak elkarren artean dituzten helburuak betetzeko moduan beteko badira.

c) Lankidetzaren garapena interes publikoarekin zerikusia duten kontsiderazioei jarraituta gidatzea, ez beste ezeri.

LAUGARRENA: sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 legeak (aurrerantzean, SPAJL), 47. artikuluan definitzen ditu hitzarmenak administrazio publikoek xede erkide baterako eta ondorio juridikorik duten akordio gisa eta hitzarmen-mota gisa ezartzen ditu, besteak beste, administrazioen arteko hitzarmenak (bi administrazio publikoren edo gehiagoren artean sinatuak); horien barruan sartu ahal izango direlarik beste administrazio baten baliabideak, zerbitzuak eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.



BOSGARRENA: hitzarmenen baliozkotasunari eta eraginkortasunari buruzko eskakizunei dagokienez, SPAJLren 48. artikulua dioenez, hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu behar du, bitarteko publikoen baterako erabilera erraztu behar du, onura publikoko jarduerak egiten lagundu behar du eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete behar du. Ildo beretik, sinatzen duen administrazioari finantza-konpromisorik eragiten dioten hitzarmenen ondoriozko gastuak aurrekontu-legerian xedatutakora egokituko dira, finantzen aldetik jasangarriak izan beharko dute eta sinatzen dituztenek finantzaketarako gaitasuna izan beharko dute, indarrean dagoen bitartean.

SEIGARRENA: Hitzarmenen edukiari dagokionean, SPAJLren 49. artikuluan araututakoak arteztuari lotuko zaio.

Aurrekoa azalduta, lortu nahi den ekintza gauzatzeko, aipatutako alderdiek honako hauek onartzen dituzte:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. Helburua: hitzarmen honen xedea da datuak babestearen arloko laguntza teknikoko zerbitzuak emateko gomendioa zeintzuk baldintzaren arabera eskainiko den adieraztea, erakunde sinatzaileak egokituko badira pertsona fisikoaren babesaz, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, diharduen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 apirilaren 27 2016 erregelamendura (EB), hain zuzen ere, datuen babeserako erregelamendu orokorra (95/46/EE Zuzentaraua) indargabetzen duenera.

BIGARRENA. Hitzarmen honen xedea gauzatzeko, alderdi sinatzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

A. ARAMAIO, ARRATZUA-UBARRUNDIA, LEGUTIO, URKABUSTAIZ, ZIGOITIA ETA ZUIAko udalen konpromisoak:

1. Konpromisoa hartzen dute, unean une indarrean dagoen aurrekontu-legerian xedatutakoa betez, zerbitzuaren kostua finantzatzen laguntzeko, bakoitzari dagokion neurrian eta, horretarako, urteko udal aurrekontuetan beharrezko aurrekontu-kredituak sartuko dituztelarik.
2. Adostasuna agertu beharko diete hitzarmen honen xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriei eta egoki irizitako ekarpenak edo alegazioak egingo, dagozkien lizitazio-prozedura izapidetu aurretik.
3. Egin beharreko ordainketak egingo dituzte, kuadrillak eskatutako, hitzarmenaren xede diren zerbitzuak eman ahal izateko beharrezko finantzaketa ziurtatuko bada, kontratazioa arautzen duen administrazio-klausula zehatzen agirian ezarritako aurreikuspenen arabera.

Honi dagokionez, Kuadrillak, eskainitako zerbitzuengatik faktura edo fakturak jaso eta enpresari ordaindu aurretik, udalen adostasuna eskatuko du horietako bakoitzari eskaini zaizkion zerbitzuekiko, eta kuadrillaren kontuan dagokien kopurua sartzeko eskatuko die, gehienez ere 15 egunen epean.

B. GORBEIALDEKO KUADRILLAren konpromisoak:

1. Udalen adostasuna eskatuko du, izapidetu aurretik, hitzarmenaren xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriekiko, azken hauek egokitzat jotzen dituen ekarpenak edo alegazioak egin ahal izango dituztelarik.
2. Informazioa emango die zerbitzuan sartuta dauden udalei esleipenaren emaitzaren inguruan, bai eta hitzarmen honen xede diren zerbitzuen prestazioaren konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketaren berri ere, izan daitezkeen luzapenak, atzera egiteak, zerbitzuen pertsona edo erakunde esleipendunak uko egiteak edo bestelako inguruabar garrantzitsuak barne.

HIRUGARRENA. Hitzarmen hau, SPAJL legearen 49.h) artikulua ezarritakoari jarraiki, 4 urtez egongo da indarrean, hau da, kontratua formalizatzen den egunetik. Hala ere, epe hori amaitu baino lehen, hitzarmena sinatu duten erakundeek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena beste 4 urtez luzatzea edo azkentzea.

LAUGARRENA. Batzorde bat eratuko da hitzarmenaren betearazpena eta jarraipena kontrolatzeko (7 kide). Gorbeialdeko kuadrillaren ordezkari batek eta zerbitzuan sartutako udal bakoitzeko ordezkari batek osatuko dute batzorde hori.

Organo honen eginkizunak izango dira, besteak beste, kontratatutako zerbitzuak eskaintzerakoan sor daitezkeen eztabaidak ebaztea eta hitzarmen honek sor ditzakeen interpretazio-zalantzak argitzea.

BOSGARRENA. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak bete ez edo behar bezala betetzen ez badira, zerbitzua osatzen duten udalek idatziz helaraziko diote Gorbeialdeko kuadrillari prestaziorik eza edo prestazioan akatsak daudela. Idazkia jaso eta 5 egun naturalen epean, kuadrillak kontratuaren enpresa esleipendunari horren berri eman beharko dio, eta enpresak, pleguetan ezartzen den epean, egoki leritzokeena alegatu beharko du eta, alegazio horiek ikusita, Gorbeialdeko kuadrillak hartu beharreko erabaki egokiena hartu beharko du egoera konpontzeko.

SEIGARRENA. Honako hauek dira hitzarmena bertan behera uzteko arrazoiak:

- Indarraldia igarotzea.
- Alderdi sinatzaileen ahobatezko akordioa.



- Aldeetako batek ez betetzea aldeetako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.
- Hitzarmena deusez deklaratu duen erabaki judiziala.
- Edo gerora sortutako arrazoiengatik, hitzarmeneko klausulak betetzea eragozten dutenak.

ZAZPIGARRENA. Hitzarmena interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordenaren ezagutzakoak eta eskumenekoak izango dira.

Sinatzen duten aldeek, zeinek bere neurrian, bere egiten dute hitzarmen honetan ezarritako zehaztapenak beren gain hartzeko konpromisoa.

Erabakitakoarekin ados daudela adierazita, agertutakoek dokumentuaren zazpi ale sinatu dituzte, bana erakunde bakoitzerako.”

8. ONARTZEA FIDANTZAREN ITZULERA EGITEA OPACUA S.A. ENPRESARI.

Alkate andreak hitza hartu eta, gogorarazten du, Opacua, S.A enpresari esleitu zitzaioela Aramaioko Etxaguen auzoko azpiegituren eraberritze lanak egiteko kontratua, 2012ko martxoaren 9ko 30/12 alkatetza ebazpenaren bitartez. Esandako obraren zuzendaritza, berriz, Studio Técnico Obras y Arquitectura, (STOA) S.L. enpresako Sergio Fernández Olegak egin zuen.

Kontratuaren esleipenerako, Opacua S.A. enpresak proposatutako hobekuntzen artean zegoen berme epea luzatzea (6 urte).

Kontuan hartuta, berme epea bukatu dela eta txosten teknikoak aldekoak direla, Hirigintza Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari onartzea ondorengo akordioa:

Lehena.- Opacua, S.A enpresak, egindako Aramaioko Etxaguen auzoko azpiegituren eraberritze lanetan eragin zitezkeen kalteak ordaindu ahal izateko jarri zuen fidantzaren itzulera eskatu du.

Bigarrena.- Aipatutako obraren zuzendaritza eraman zuen Sergio Fernández Oleagak, Opacua, S.A enpresak egindako lanen egoera egokia dela egiaztatzen duen txostena aurkeztu du.

Hirugarrena.- Aurkeztu den eskaeraren aurrean eta Sergio Fernández Oleagak egindako txostena kontutan hartuta, Aramaioko Etxaguen auzoko azpiegituren eraberritze lanetarako jarritako fidantza itzulera onartzea.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

9. ONARTZEA FIDANTZAREN ITZULERA EGITEA EXCAVACIONES ARRASATE S.L. ENPRESARI.

Alkate andreak hitza hartu eta, gogorarazten du, Excavaciones Arrasate, S.L. enpresari esleitu zitzaioela Muru auzoko hondakin urak saneatzeko eta sarbidea egokitzeko lanak egiteko kontratua, Udalbatzak 2014ko abuztuaren 8an hartutako erabakiaren bitartez. Esandako obraren zuzendaritza, berriz, Studio Técnico Obras y Arquitectura, (STOA) S.L. enpresako Sergio Fernández Olegak egin zuen.

Kontratuaren esleipenerako, Excavaciones Arrasate, S.L. enpresak proposatutako hobekuntzen artean zegoen berme epea luzatzea (5 urte).

Kontuan hartuta, berme epea bukatu dela eta txosten teknikoak aldekoak direla, Hirigintza Batzordeak proposatzen dio Udalbatzari onartzea ondorengo akordioa:

Lehena.- Excavaciones Arrasate, S.L. enpresak, egindako Aramaioko Muru auzoko hondakin urak saneatzeko eta sarbidea egokitzeko lanetan eragin zitezkeen kalteak ordaindu ahal izateko jarri zuen fidantzaren itzulera eskatu du.

Bigarrena.- Aipatutako obraren zuzendaritza eraman zuen Sergio Fernández Oleagak, Excavaciones Arrasate, S.L. enpresak egindako lanen egoera egokia dela egiaztatzen duen txostena aurkeztu du.

Hirugarrena.- Aurkeztu den eskaeraren aurrean eta Sergio Fernández Oleagak egindako txostena kontutan hartuta, Muru auzoko hondakin urak saneatzeko eta sarbidea egokitzeko lanetarako jarritako fidantza itzulera onartzea.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Hirigintza Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



10. ONARTZEA, BADAGOKIO, 2020KO UDAL AURREKONTUA.

Alkateak aurkeztu du 2020 urteko ekitaldiari dagokion aurrekontu egitasmoa. Esan beharra dago, laburbilduz, aurrekontu egitasmoa egin dela, indarrean dagoen 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak agindutakoarekin bat eta bertan jasotzen diren dokumentuek osotzen dutela.

Halaber, aipatutako dokumentazio horren zati adierazgarrienaren kopia bidali zitzaizen aurretiaz bilkurako kide guztiei eta, horretaz gain, dagokion batzordean azaldu ziren egitasmoaren muina eta ildo nagusiak. Azpimarragarria da, indarrean dagoen legediaren arabera, aurrekontu orokorraren egitasmoak jasotzen dituela bi erakunderen aurrekontuak: batetik, Aramaioko Udaleko aurrekontua; eta, bestetik, Aramaioko Argindar Banatzailea, S.A.rena (azken horren aurrekontua onartzea bere administrazio kontseiluari dagokio).

Alkateak laburpena egiten du, Aramaioko Udalaren berariazko aurrekontuari buruz, kapitulu eta partida adierazgarrienak aipatuz. Baita ere, azpimarratzen du, ondorengo aurreikuspenak jasotzen dituela: batetik, sarrerak 1.937.376,00.-€ (iazkoarekin konparatuz, %10,18ko jaitsiera); eta, bestetik, gastuak, 1.937.376,00.-€ (iazkoarekin konparatuz, %10,18ko jaitsiera).

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta esker ona adierazten du, aukera eman zaielako egitasmoa ezagutu, horri buruzko proposamenak egin eta, baita ere, egindako proposamenei buruzko erantzun arrazoitua jaso dutelako. Hala ere, egindako zuzenketa proposamenak bozkatzea nahi dutela dio.

Oihana Ameskoa Perez zinegotziak hitza hartu eta azaltzen du, proposamen guztiak arretaz aztertu dituztela guztien artean eta erantzun zehatza adostu dutela taldean.

Alkateak galdetzen dio Pedro Elosegui zinegotziari, batetik, egindako proposamen guztiak mantentzen dituzten, nahiz eta adierazi den bezala, batzuk udalak aspaldi eginak dituen proiektuak izan. Eta, bestetik zuzenketa guztiak banan-banan bozkatzea nahi dituzten edo guztiak batera.

Pedro Elosegui zinegotziak erantzuten du baietz, guztiak mantentzen dituztela eta, bozkatzeari dagokionez, nahikoa izango dela zuzenketa guztiak batera bozkatzea, gai bakoitzaren erantzun zehatza jaso baitute.

Horrenbestez, alkate andreak aurkezten du, EAJ udal taldeak 2020 ekitaldiko aurrekontuari egindako zuzenketa proposamenen zerrenda:

zuzenketak

Bozketa egin eta EH Bilduko zinegotzien aurkako 7 bozka eta EAJko zinegotzien 2 aldeko bozka jaso ondoren, EAJ udal taldeak 2020ko aurrekontuari egindako zuzenketa proposamenak BAZTERTU egiten dira.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Hasierako onarpena ematea 2020ko udal aurrekontu orokorrari. Ondorengoa da aurrekontuaren laburpena:

- 2020 ekitaldiko udal aurrekontu propioa

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	464.868,86 €	1. Zuzeneko zergak	469.000,00 €
2. Ondasun arruntan eta zerbi. erosk	990.664,20 €	2. Zeharkako zergak	15.000,00 €
3. Interesak	1.700,00 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	174.590,00 €
4. Transferentzia arruntak	190.319,79 €	4. Transferentzia arruntak	980.827,22 €
6. Inbertsio errealak	289.323,15 €	5. Ondare sarrerak	126.965,10 €
7. Kapital transferentziak	500,00 €	7. Kapital transferentziak	170.993,68 €
<u>Guztira</u>	<u>1.937.376,00 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>1.937.376,00 €</u>



- 2020 ekitaldiko AAB enpresa publikoaren aurrekontua

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	40.804,97 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	393.336,54 €
2. Ondasun arrunten eta zerbi. erosk	221.019,82 €		
6. Inbertsio errealak	131.511,75 €		
<u>Guztira</u>	<u>393.336,54 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>393.336,54 €</u>

- 2020 ekitaldiko bateratutako aurrekontu orokorra

GASTUEN EGOERA		SARREREN EGOERA	
1. Langileen ordainsariak	505.673,83 €	1. Zuzeneko zergak	469.000,00 €
2. Ondasun arrunten eta zerbi. erosk	1.211.684,02 €	2. Zeharkako zergak	15.000,00 €
3. Interesak	1.700,00 €	3. Tasak eta bestelako sarrerak	567.926,54 €
4. Transferentzia arruntak	190.319,79 €	4. Transferentzia arruntak	980.827,22 €
6. Inbertsio errealak	420.834,90 €	5. Ondare sarrerak	126.965,10 €
7. Kapital transferentziak	500,00 €	7. Kapital transferentziak	170.993,68 €
<u>Guztira</u>	<u>2.330.712,54 €</u>	<u>Guztira</u>	<u>2.330.712,54 €</u>

Bigarrena.- Agintzea, dagokion iragarkia argitaratzea Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta hamabost eguneko epea irekitzea epealdi horretan interesatuek espedientea aztertu eta udalbatzari egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, 3/2004 Foru Arauak, otsailaren 9koak, Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 15.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Hirugarrena.- Jakinaraztea, halaber, epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko dela, beste erabakiren bat hartu beharrik gabe."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, EH Bilduko zinegotzien aldeko 7 botorekin eta EAJko zinegotzien aurkako 2 botoekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

11. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPENA.

Alkate-lehendakariak aurkezten du, Emakumeen nazioarteko eguna dela eta, egun horretan egitekoak diren ekimenak babestu eta sustatzearen aldeko adierazpen proposamena. Horrek, hitzez hitz, dio:

"MARTXOAK 8- EMAKUMEEN*1 NAZIOARTEKO EGUNA

Bi urteko greba feminista eta gero, orain zer? Nahiz eta martxoaren 8a borrokarako eta emakumeen eskubideen aldarrikapenerako eguna izaten jarraitu, beharrezkoa da gelditzea eta norantz joan behar dugun pentsatzea.*

Emakume taldeen eta mugimendu feministaren aldarrikapenak argi geratu dira. Sistema hetero-patriarkal kapitalista benetan eralda dadin, iraultza feminista bizitzako esparru guztietan eman behar da, lan ordainduetan eta doan egindakoetan, sexualitatean, egungo kontsumo-ereduan, egungo familia-ereduan, ezagutzak erreproduzitzeko moduan, arrazakeriaren aurrean, egungo edertasun-ereduaren aurrean, genero-kategorien aurrean eta emakumeak bizitzen jarraitzen duten zapalkuntza guztien aurrean.*

Ezin dugu ahaztu zapalkuntza eta desberdintasun horiek guztiak indarkeria matxistarekin duten lotura; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria estruktural, sinboliko, ekonomiko, psikologiko eta fisikoko egoerak erreproduzitzeko eta indartzeko haztegia dira horiek guztiak.

Feminizidioak ohikoak izaten jarraitzen dutela ahaztu gabe, eta 2019an Euskal Herrian lau emakume, Espainiako Estatuan laurogeita bost eta munduan milaka emakume erail dituztela 2003tik hona.*



Errealitate horren aurrean, politika publikoak egokitu egin behar dira eta estrategiak bilatu behar dira diskriminazio mota guztiak ezabatzeko, gizateriaren erdiek, emakumeek, gizonen aukera berberak dituztela baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko bermatuz. Pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituzten neurriak bultzatzeko, erakunde publikoen antolaketa-kultura eraldatzeko eta berdintasunaren espejismoa gainditzeko. Horrela, emakumeek aukera izan dezaten izan, sentitu eta libre bizitzeko.*

Aramaioko Udalak gure erantzukizun sozial eta politikoa onartu behar du berdintasunezko jendarte baten eraikuntzan, politika feminista transbertsalak diseinatuz, errotik eraldatuko dutenak eta eremu guztietan eragingo dutenak.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

LEHENENGOA.- Berdintasun egiturari baliabide ekonomikoak ematea, berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

BIGARRENA.- Emakumeekin eta mugimendu feministarekin elkarrizketarako espazioak bultzatzea.*

HIRUGARRENA.- Emakumeen ahalduntzea bultzatzen duten ekintzak garatzea.*

LAUGARRENA.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak garatzea udal araudi, programa eta zerbitzu guztietan.

BOSGARRENA.- Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna bermatzea udal arlo eta jarduera guztietan.

Norbanakoen/udalerrien aberastasunetik haratago, guztion bultzadatik, Aramaiotik ere, olatu feministan batu behar ditugu gure indarrak.

Horregatik guztiagatik, dei egiten diegu herritar guztiari martxoaren 8 honetarako Mugimendu Feministak egingo dituen mobilizazio deialdietan parte har dezaten.

Emakumeok terminoarekin, heteropatriarkatuaren zapalkuntzaren baitan dauden subjektuak izendatu nahi ditugu”*

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta adierazten du, bere alderdiak abstentzioaren alde egingo duela, egokiagoa ikusten baitute EUDELEk proposatutako testua eta ez alkate andreak aurkeztu duena.

Alkate-lehendakariak erantzuten dio, aurkeztutako testua Gorbeialdeko Kuadrillan onartutako testua dela, bertan adostutakoa eta Kuadrillako berdintasun teknikariarekin landu ondoren, aho batez onartutakoa.

Besterik gabe, bozketa deitu du eta Udalbatzak, EAJ udal taldearen zinegotzien (2) abstentzioarekin eta EH Bildu udal taldearen zinegotzien (7) aldeko botoarekin, emakumeen nazioarteko egunari buruzko adierazpen proposamena ONETSI ETA BERE EGITEN DU.

12. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez daude.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.